

# MAILOPE

ARAITZ | BETELU | LARRAUN | LEKUNBERRI

318 - 2023ko AZAROA

FESTA GIRO  
EDERREAN

## AMERIKETARA JOAN ZEN ARTZAIN BEZALA\*

Ez da egokia gaztelaniazko 'como' guztiak bezalarekin ordezkatzea; euskarak baditu molde propio egokiak horretarako. Berez, **konparazio-hitza** da bezala, eta konparazio-perpausetan erabiltzekoa: hortik kanpo, kalko-arriskuagatik, tentuz neurtzekoa da.

- ▶ Atribuzio-perpausetan (tradizioan presentzia badu ere, ez erabiltzearen aldeko hautua egiten dute esti-lo-liburu askok):

-Ameriketara joan zen artzain **bezala**:  
 -Bost urtez aritu nintzen Betelun irakasle **bezala**:  
 -Faborito **bezala**: ikusten dut Irribarria.  
 -Aurrelari **bezala**: jokatu du.

- ▶ *Jo, eduki, hartu eta tankerako aditzek -tzat eskatzen dute, ez bezala:*

-*Tonto bezala hartu naute\** > Tontotzat hartu naute.  
 -*Lider bezala daukate\** > Lidertzat daukate.

- ▶ Ez da egokia *deritzon/esaten zaion/delako* esan nahi denean, *bezala* erabiltzea:

-*Txirrita bezala ezagutzen da\** > Txirrita izenez ezagutzen da.  
 -*Sara bezala bataiatu zuten\** > Sara izenez bataiatu zuten.

- ▶ Adibideei sarrera emateko, *bezala(ko)* baino egokiagoak dira honako hauek: *besteak beste, esate baterako, hala nola, eta antzeko...*

-*Gure lorategian txantxangorria eta zozoa bezalako txoriak izaten dira\** > Gure lorategian, txantxangorria, zozoa eta antzeko txoriak ibiltzen dira.



ika araitz-betelu

# GURE BLACK FRIDAY



UDARA  
ANTE IRAUNGO DU

# adamo

Zuntza · Mugikorra · Finkoa · TV



1.000 Mb



20 GB

# 10€/HILEAN

7 HILABETEZ 41€/HILEAN

DEITU DOAN 900 651 722

www.adamo.es

Euskaratza hau adierazten du Adamo-ren zerbitzu edo produktuak kontratatu edo erabili behar diren bezeroentzat soilik dago eskuragarri. Sustapen honen finko e-daturik hartza, eta 2023/11/01 eta 2023/11/30 egunen artean, bak berriz kontratatzeko badu. Sustapen hau ez da beste sustapenekin bateragarria. Sustapen honak honako hauek hartzen ditu berriz: (1) Intermiserako sarride-zerbitzua: 1.000 Mb-eko zuntza + 20 GB-eko datu mugikorrik lehertu 7 hilabetez 10 €/hilean eta, geroago, 41 €/hilean ordaintzeko (2) Mugikor BEZA eta linea finko hartzen dituzte berriz. Ez da akzio-zerbitzua. (3) BEZA berriz hartzen, berriz router premium-aren instalazioa berriz hartzen du. Zerbitzu honak 12 hilabetezko egonakia du, kontratatu-daturik hartza. Zerbitzua lehenago ezarrituz gero, 163,35 €/40 BEZA berriz kargu aplikazioko zire egonaldiaren gainerako hilabetez proportzionalak. Mugikor-linea gehigarriak 4 linea berrizko kopurura mugatuta daude.

· MAILLOPE DOAN BANATZEN DA HONAKO HERRIETAN:

Albiasu, Aldatz, Alli, Arribe, Arruiz, Astitz, Atallu, Azkarate, Azpirotz, Baraibar, Betelu, Errazkin, Etxarri, Gaintza, Gorriti, Intza, Iribas, Lekunberri, Lezaeta, Madotz, Mugiro, Oderitz, Uitzti eta Uztegi.

· ARGITARATZEN DU:

Maillope Kultur Elkarteak.  
L.G.: NA 719/93

Maillopek ez du bere gain hartzen bertan adierazitako iritzi eta esanen erantzukizunik.  
[issuu.com/maillopealdizkaria](http://issuu.com/maillopealdizkaria)

· ERREDAKZIOA:

Ainhoa Beraza, Aitor Irastortza, Ane Ubegun, Arantxa Mikeo, Mikel Hernandorena eta Xanti Begiristain.

· ARGAZKIAK:

Ainhoa Beraza, Arantxa Mikeo, Eider Martirena, Hauda, Labrit, Maddi Huarte eta Olatz Martirena.

· PUBLIZITATEA:

Labrit Multimedia - 948 210 103 - [maillope@labrit.net](mailto:maillope@labrit.net).

· MAKETAZIOA:

Noé Lopez Albizu

· TIRADA: 1.600 ale.

Nafarroako Gobernuak, eskualdeko Udal, kontzeju eta bazkideek babestutako aldizkaria.

Gobierno de Navarra Nafarroako Gobernua

LABRIT  
MULTIMEDIA

02 ▶ ZUZEN ETA JATOR

04 ▶ KUXKUXEAN Zorion agurrak

08 ▶ ELKARRIZKETA  
Lontxin Zubillaga



12 ▶ BATZARRE

14 ▶ ERREPORTAJEA  
100 urte eta segi aurrera



18 ▶ KULTURA

22 ▶ ELKARRIZKETATXOA  
Javier Almirantearena



24 ▶ KIROLA

25 ▶ MAITE DITUT MAITE  
Pagoeta eta Urkieta



28 ▶ PLAZATIK PLAZARA  
Jatera goazena ordenatzen

31 ▶ AGENDA







### Martina Tolosa Goikoetxea

100 urte bete zituen irailaren 29an. Martina Azkaraten jaio zen, eta Lekunberrin bizi izan da urte askoan. Zazpi seme-alaba hazteaz gain, gurasoen zaintza-lana ere bere gain hartu zuen. Zorionak eta eskerrik asko etxekoen eta Lekunberriko Udalaren izenean:

Goizero egunsenti batek esnatzean zera ikusten dugu begira jartzean: ehun urteko uzta zure baratzean lorerik maiteena daukagu etxean.



### Haizea Garmendia Aristi

Azaroaren 9an, 4 urte. Zorionak ttikitina!!! Segi beti bezain alai ta sorgiñe izaten!! Muxu haundi bat famili guzin partez.

### Egoi Apezetxea Gabari

Azaroaren 21ean, 9 urte. Zorionak artista!!! Oso ongi pasa zure egunean, asko maite zaitugu! Muxu handi bat etxekoen partez.



### Luka Soria Iriarte

Azaroak 23an, 5 urte! Zorionak maitia! Gogotsu zeunden zure eguna iristeko eta azkenik ailegatu da! Elkarrekin egun ahaztezin bat pasako dugu. Besarkada eta muxu erraldoi bat etxeko guztien partez. Asko Maite zaitugu



### Iria Soria Iriarte

Abenduaren 8an, 3 urte! Zorionak etxeko printzesari! Espero dugu zutaz orain arte bezainbeste disfrutatzen jarraitzea. Muxu erraldoi bat etxeko guztien partez. Asko Maite zaitugu

### Aiora Zabaleta Erro

Azaroaren 27an, 10 urte. ZORIONAK printzesa!!! Muxu erraldoi bat etxekoen partez!!! Maite zaitugu!!!



Mailope aldizkaria zorion agurrak jasotzeko irrikan dago! Idatz iezaguzu [mailope@labrit.net](mailto:mailope@labrit.net) e-postara hilaren 20a baino lehen.

CONSULTORIO VETERINARIO, S.L.  
HIRUROK S. VETERINARIOS  
Telefono zenbakia eta faxa:  
948 50 43 31  
Lekunberri

MALLOAK  
ARTZAI GAZTAK  
Gratu Murtioak, GARRETA, Nafarroa  
Tel. 649 672 051 + Inoan: 948 511 051  
Mailope.net + info@malloak.com  
TOJAZABAL

TAXI  
SOROA  
609 168 217  
Bederatzi plaza

PUBLIZITATEA  
MAILOPEN  
Labrit Multimedia  
948 210 103  
mailopez@labrit.net



## PALESTINAR HERRIAREKIN ELKARTASUNA

Israelgo estatu burutzen ari den genozidioa salatu eta bere konplizea den Europar Batasuna seinalatzeko elkarretaratzea egin zuten Lekunberriko plazan, Larraungo Kontseilu Sozialistak deituta. Palestinarrei elkartasuna adierazteaz gain, okupatzaileen aurkako erresistentziarako duten eskubidea aldarrikatu zuten.



## PARTE HARTZE JARRERAREKIN KEZKATUTA

Lekunberriko karpako barraz arduratu direnek kezkaz hitz egin dute, izan ere, lortutako onura ekonomikoa ez da esperotako mailara iritsi: "inoiz baino gonbidatzeko joera handiagoa ikusi dugu". Laguntzen aritu direnei eskerrak ematearekin batera, etorkizunean egoera honi buelta ematea espero dute.



## MAILOPE.EUS WEBGUNE BERRIA

Euskarabideak diruz lagunduta webgune berria jarri dugu martxan. Urriaren 30ean aktibatu genuen eta hemendik aurrera edukiak eguneratuagoa izateko ahalegina egingo dugu. Bertan sartu eta kuxkuxeatzeko gonbita egiten dizuegu.

## ► Ane Zabala Estanga (Arribe)



*Kaixo Andoni zer moduz  
natorkizu kantatzera  
Uda honetan eukizu  
zorioneko egoera  
700 euro hartu ta  
Malaga bidaiatzera  
Dena pagatuta eukita  
hoixe bai dela plazera*

*Ez tragoik atea ezta  
bidaiatzeko eskaera  
Arriben geatu nintzen ni  
nere zaldikin batera  
Nahiz ta hala ez iruittu  
kriston laguna bazera  
Hemen duzu barkamena  
bertsoz eskatzeko aukera*

**Doinua: Habanera. Hurrengoa: Andoni Urrestarazu Garmendia (Betelu)**



Más sabe  
el diablo por viejo  
que por diablo  
Deabrua adintsu,  
horregatik jakintsu



...¿O NO?  
...EDO EZ?

**SUSCRÍBETE A TU REVISTA LOCAL  
y recibe un lote de libros gratis**  
**HARPIDETU ZURE HERRIKO ALDIZKARIAN  
eta jaso liburu-sorta bat doan**

\* Las 10 primeras personas que se suscriban recibirán un lote con tres libros gratis

\* Harpidetzen diren lehen 10 lagunek hiru liburu doan dituen sorta bat jasoko dute.

Gobierno  
de Navarra



Nafarroako  
Gobernua

nafar  
**PRES**

Asociación de la  
Prensa Local de Navarra

Nafarroako Tokiko  
Prentsaren Elkartea

## GERRAK DEBEKATU BEHAR DIRA

(Testu hau orain dela bederatzi urte idatzi nuen, baina, zoritxarrez, inoiz baino gaurkotasunik handiena dauka, horrexegatik argitaratu nahi dut berriz ere).

### ZERGATIK? Hona hemen 28 arrazoi:

- 1-. Etxeak suntsitzen dituztelako, eta etxeak suntsitzea galarazia dago mundu osoan.
- 2-. Gerrek nahita suteak sorrarazten dituztelako, eta hori eragotzia dago herrialde guztietan.
- 3-. Gerrek kutsadura ikaragarri handia sortzen dutelako, eta kutsadura sortzea gaur egun oso jazarria dago.
- 4-. Gerrek eskolak eta unibertsitateak puskatzen dituztelako, eta hori onartezina da planeta osoan.
- 5-. Gerrek ospitaleak txikitzen dituztelako, eta ospitaleak txikitzea aberrazio hutsa da.
- 6-. Gerrek animaliak izutu, zauritu eta hil egiten dituztelako, eta horrek ez ditu pertsonak hobetzen.
- 7-. Gerrek urak zikindu, kutsatu eta pozoitzen dituztelako, eta ekintza hori osasungintzaren aurkakoa da.
- 8-. Gerrek artea, museoak-eta desegiten dituztelako, eta hori adimenaren kontrakoa da.
- 9-. Gerrek kulturak birrintzen dituztelako, eta kulturak birrintzea guztizko aldrebeskeria da.
- 10-. Gerrek gosea eta sufrimenduak eragiten dituztelako munduan, eta hori oso aldrebesa eta arbuigarria da.
- 11-. Gerrek gaixotasunak ikaragarri biderkatzen dituztelako, eta jokamolde hori zientziaren aurka doa.
- 12-. Gerrek haur, gizon-emakume eta zaharrak izutu, zauritu eta erail egiten dituztelako, eta horrek ez du ez bururik ez hankarik galaxia osoan.
- 13-. Gerrek gizakiak aurrez aurre jartzen dituztelako elkar hiltzeko beren borondatearen aurka, eta hori ulertezina da.
- 14-. Gerrek hizkuntza eta kultura sendoenak inposatu egiten dituztelako, eta ahulenak, berriz, desagerrarazi, eta hori zapalkuntza hutsa da.
- 15-. Gerrek gizartea basati bihurtzen dutelako, eta hori gizatasunaren aurkakoa da.

16-. Gerrek gizateriari arima lapurtzen eta deuseztatzen diotelako, eta horrek animalia irrazional bihurtzen gaitu.

17-. Gerrek inperialistak eta kolonizatzaileak direlako, eta hori ez da batere demokratikoa.

18-. Gerrek ez dituztelako arazoak konpontzen adostasunaren bidez, eta bizikidetzara, aldiz, larriki zauritua uzten dute; hori ezin onartuzkoa da.

19-. Gerrek giza eskubide guzti-guztiak urratzen dituztelako, eta hori ezin da inoiz bidezkoa izan.

20-. Gerrek ustelkeria, lapurretak eta ilunkeria sustatzen dituztelako, eta hori guztia gardentasunaren kontrakoa da.

21-. Gerrek gizon-emakumeak, haurrak eta abar bortxatu, torturatu eta gaizki tratatzen dituztelako, eta horrek guztiak pertsonak alienatu egiten ditu.

22-. Gerrek mota guztietako biktimak sorrarazten dituztelako, eta hori legez kanpokoa da leku guztietan eta beti.

23-. Gerren eragile eta errudunek ez dutelako beren larru sentibera eta delikatua arriskatzen, baina besteena bai; ez dute inondik ere elkarkidetasunik.

24-. Gerrek giza balio etiko guztiak zapal-zapalduta uzten dituztelako, eta hori adimenduaren aurkakoa da.

25-. Gerrek maitasuna eta elkartasuna gorroto bihurtzen dituztelako, eta hori ontasunaren ifrentzua da.

26-. Gerrek aberats gutxi batzuk gehiago aberasten dituztelako, eta, behartsuak eta jende xumea, ordea, gehiago txirotzen dituzte oraindik, eta hori ez da inola ere morala eta etikoa.

27-. Gerrek Lur planeta hondatu egiten dutelako, eta Lurra gure etxe bakarra da.

28-. Gerrak debekatu behar dira, laburbilduz, horretarako hamaika mila milioi arrazoi daudelako, jakin, ulertu eta onartu nahi dituztenentzat.

Zein herri erdi zibilizatuk eta erdi demokratikok onar ote lezake gerra laurden bat ere?

**Xanti Begiristain Madotz**

Auritz, 2014-09-20



**Lagunasesoria S.L.**

Fiskala  
Laborala  
Kontabilitatea  
Seguruak...

k/ Artzanegi, 2 Behea 31870 Lekunberri (Nafarroa) tel/fax 948 504 232  
lagunasesoria@terra.es

**Bar Ainhoa**

- Razioak
- Pintxoak
- Ogitartekoak
- Plater konbinatuak
- Gosariak Tostadak mermeladarekin eta bertan eskuz egindako madalenak, erroskilak, croissant-ak eta napolitanak.

Astelehenetik ostiralera goizeko 7:00etatik aurrera  
Aralar 15, 31870 Lekunberri (Nafarroa)  
948 504 077 · 639 778 851 · aitziberalf@hotmail.com

# “Asko dira egin nahi ditugun gauzak, baina lehentasunak zehazten joanen gara”

Azken udal hauteskundeetan Lontxin Zubillagak Beteluko alkatetzaren ardura hartu zuen. Iñaki Elizalde, Aitziber Otamendi, Igor Otermin, Ander Prados, Cristina Val Sardon eta Nerea Yerequirekin batera Arritxu taldea sortu zuten eta lehen hilabete hauetan buru-belarri aritu dira aurrez martxan zeuden proiektuak bideratzen eta berriei lekua egiten.

egin behar izan du. Nik, pertsonalki, diru-laguntza handiagoa lortzera itxarongo nukeen. Lehenago edo beranduago egin beharreko lan bat zen, baina gurea bezalako udal txiki batean aurrekontu handia eskatzen duten proiektuak diru-laguntza handiagoarekin egin behar dira, bestela gainerako beharrak bideratzeko mugatuta gelditzen zara.

## **Eta aurrez onartuta zeuden zein beste proiektu bideratu dituzue?**

Zubialde ondoko erreka garbiketa lanak. Horiek bukatzeaz daude. Kantauriko Ur Konfederazioaren baimenarekin egin den proiektua da. Errekaren ibilgutik harria atera eta garbitu egin da eta bide batez, bertatik ateratako harria bideak txukuntzeko erabili dugu. Kastabalgoko lurrezko bidean harria jarri dugu. Lan horiek 20.000 euroko gastua dakarte eta *Azkarateko Excavaciones y Construcciones Bartolo* enpresarekin egiten ari gara.

## **Bi horiek gastu esanguratsua izanik ere, izango zenuten zuen lehen proposamenak egiten has-teko aukera...**

Bai, udalean sartu ginenean, Indianoetxeari erreparatzen hasita, ohartu ginen argiteria sistema oso zaharkitua zegoela. Kableak ere kobrezkoak ziren eta ikara genuen zerbait gertatuz gero aseguruia ez ote zen erantzule eginen. Eta hemendik, Iñaki Elizalderi egindako lana eskertu beharrean gaude. Abuztu osoa eman zuen hemen auzolanean instalazio berria jartzen. 2.000 euro inguru gastatu genituen material berrian baina instalazioa berak egin du muxu-truk, bere borondatez.

## **Eraikin osoko argiteria berriztu da?**

Beheko solairukoa izan ezik, gainerako guztia. Beheko solairuan, aurretik berritua zegoen.

## **Zeintzuk izan dira legegintzaldi hasiera honetan egindako lanak?**

Udalean sartu ginenean, Araxes lkastetxeko igogailuaren proiektuari eutsi behar izan genion. Aurreko legegintzaldiaren amaieran onartutakoa zen, gu hautagai ginela onartua. Abuztuan hasi ziren igogailua jartzeko lanak eta azaroaren 25erako amaituta egon behar dute.

## **Orain arte ikastetxeak ez zuen igogailurik, ezta?**

Ez, egitura prestatua zegoen jarri ahal izateko, baina ez zuen. Orain aurrez zegoen egitura altxatu eta espazioa berritu egin da. Hezkuntza Departamentuak emandako 45.900 euroko diru-laguntzarekin egin da, hau da %30arekin, baina hala ere Udalak 106.985 euroko gastua



Argazkiak: Arantxa Mikeo



## Araxes Ikastetxeko igogailuaren proiektuari eutsi behar izan genion

### Udaletxean bertan beraz bazezgoen zeregina...

Bai. Tresna informatikoetan ere inbertsio txiki bat egin dugu. Ordenagailuetako bat nahiko zaharkitua zegoen eta administrazio lanetan aritzen den udal langilearen ordenagailua zinegotzi eta alkatearen lanerako erabiliko dugu orain eta berari ordenagailu berria erosi diogu eta baita fotokopiagailu bat ere. 2.300 euroko gastua izan da.

### Udaletxetik kanpo ere aritu zarete, ur-biltegiak garbitzen esaterako...

Bai, Txoarre parajea dagoen ur biltegiak bi ontzi ditu eta barruan lokatza metatzen joan ohi da. Urtero bietako bat hustu eta garbitu ohi da. Horretan aritu ginen uztailean. Eta herriko mendi-bideak azken urteetan garbitu gabe zeuden eta horiek ere txukuntzen aritu gara.

### Zeintzuk?

Txoarreko bidea, San Donato-Kastabalgo bidea eta Haiztitxoko bidea. Horiek dira herriko mendi-bide nagusiak eta bide bazterrak garbitu eta ubideak txukundu ditugu. Desbrozatzeko lanetan Errazkingo Jon Ezkurdia aritu da.

### Hilabete honetan herritarrak auzolan batean parte hartzera deitu nahi dituzue...

Bai auzolan bat antolatzen ari gara. Jendeak nola erantzuten duen ikusi nahi dugu. Lan errazak izanen dira. Adibidez kaleko eserlekuak margotu, herriko garbitokia txukundu... Lantxo horiek auzolanean egitera animatu nahi ditugu herritarrak. Denok elkarrekin herriarentzat lan egiteak batzen eta kontzientzia sortzen laguntzen du.

### Banku batzuk margotu beharrean daude, baina beste batzuk aldatu ere egingen dituzue, ezta?

Bai, horri lotuta hiru banku berri



### Auzolan bat antolatzen ari gara

jarri behar ditugu Artositik Ipintzara arteko bidean. Jende asko ibiltzen da paseoan eta han zeuden eserlekuak harri eta tabloi batzuekin jarriak ziren eta badirudi pare bat emakumek sustoren bat izan dutela. Beraz, erriko gehiago ekiditeko berriak jarriko ditugu lehenbailehen.

### Eta herritarrekin lotutako beste-lako proiekturik baduzue?

Jubilatuena Elkartearen zuzendaritza batzordeko kideekin bilera pare bat egin ditugu. Elkarte berraktibatze laguntza eskatu ziguten. Adineko jende asko hil egin da eta jubilatuen berriak direnei kosta egiten zaie dinamika horietan sartzea eta elkarte itzaltzen hasia zen. Batzordeko kideekin eta Gizarte Zerbitzuko langileekin

egon eta gero, herritarrak bilera ireki batera gonbidatzea adostu genuen. Ea denon artean elkarte berraktibatze ideiak ateratzen ditugun eta jendea parte hartzeko prest dagoen...

### Adinekoak aipatu dituzu, baina txikien segurtasunari begirako neurrien bat hartzeko ahaleginetan ere bazabiltzate.

Bai, Ostatuaren aurreko zebra-bidean irtengune altutxo bat jarri nahi dugu. Kotxeek abiadura handia hartzen dute herrian eta arriskutsua da denontzat. Ea lortzen dugun zebra-bideari altuera pixka bat ematea. Izapideak egiten ari gara.

### Nafarroako Foru Komunitateko Baso-suteetarako Babes Zibileko Plan Bereziaren arabera, 2022tik, Betelu arrisku handiko eremuetan kokatutako 87 udalerrien artean dago.

Bai, badirudi klima-aldaketak denbora gutxian ekarriko duen tenperatura igoera eta hemen ditugun basoak



### Ostatuaren aurreko zebrabidean irtengune altutxo bat jarri nahi dugu

zen udal bilkura ez ziren etorri eta ez da inolako bilerarik egin nolabaiteko informazio trukea eta eguneratzea bideratzeko, baina udal langileen laguntzarekin moldatu gara. Lehen hilabete hauek, eguneratze lanetan eta aurrez onartutako horiek ixten eman ditugu, baina hasiak gara interesgarriak izan daitezkeen lan-ildoak aztertzen eta irekitzen.

#### Adibidez?

Ikastetxeko eta kiroldegiko teilatuan eguzki plakak jartzeko aurreproiektua prestatzen ari gara. Hango argiteria ere berritu nahi dugu. Urtean ia 20.000 euroko gastua zegoen udal eraikinen argian. Orain, Indianoetxeko sistema berritzearekin dezente jaitsiko da gastua eta ea proiektu horiekin are eta gehiago jaisten dugun. Bestetik, haurren jolas-parkea ere berritzeko dago, UEMAn sartzeko aukera aztertzen ari gara, udaletxeko atarian desfibriladore bat ere jarri eta herritarrei hori erabiltzen ikasteko formakuntza eskaini nahi dugu... Askok dira egin nahi ditugun gauzak, baina lehentasunak zehazten joanean gara pixkanaka.

kontuan izanik, arriskutsua bihurtu litekeela. Hori dela eta, behartuta gaude suteek eragindako larrialdien aurrean jarduketara plan berezi bat diseinatzea. Berez iaz egin beharreko plan bat zen. Oker ez banago Araizko Udalak dagoeneko eginga du eta guk ere hori aurrera atera beharko dugu. Plana diseinatzeaz gainera, herritarrei formakuntza ere eskaini behar diegu, sute egoera batean nola jokatu dakien boluntario talde bat izateko. Azaroa eta abendua bitartean izanen da 30 orduko ikastaro hori.

#### Sua ez ezik, bertako urak ere erakarri ditu beste batzuk, ezta?

Bai, Kantauriko Ur Konfederazioak datuen bilketarako zentro meteorologiko eta hidrografiko txiki bat jarri du Betelun. Uraren kalitatea, emaria etab. kontrolatzen du eta datu horiek baliagarri zaizkie ondoren AEMETen bitartez herritarrei eskaintzeko.

#### Lanik ez zaizue falta, baina zer moduzkoa izan da hasiera?

Ongi. Ez dugu aurreko udal ordezkariekin alkatetza funtzioen eskuordetzerik egin. Guk kargua hartzeko egin

tanatorios  
**IRACHE**  
Betidanik

ALTSASU - IRURTZUN  
LEKUNBERRI - BETELU - LEITZA

LOREAK, HILARRIAK, ESKELAK,  
ERRAUSKETAK ETA ZERBITZU OSAGARRIAK  
\*\*\*\*\*

24 ORDUKO TELEFONOA  
· 948 19 70 70 ·  
www.tanatoriosirache.es

AMAIRO BAR  
ETXIKO PIZZAK,  
KOPA BEREZIAK  
948504352

Antzonia  
BASERRIKO GAZTA

948 513 468  
www.antzonia.com  
Ustegi (Araitz)

**NEKAZARI, S.L.**

Kubota  
STIHL

Antonio Carraro

Olagain. Mugiro. Nafarroa  
Tel.: 948504128  
Fax: 948504377  
nekazarisl@hotmail.com



# BATU DITZAGUN GURE AHOTSAK,

TEKNOLOGIARI  
EUSKARAZ  
IRAKASTEKO



**[gaitu.eus](http://gaitu.eus)**

Erronka berri bat dugu euskaldunok.  
Teknologiari eta adimen artifizialari euskara irakatsi behar diegu.  
Eta horretarako, milaka ahots behar ditugu.  
Mundu digitalean ere euskaraz bizi ahal gaitezen.

**Sartu webgunean eta eman zure ahotsa.**



Gobierno de Navarra

Parlaments de Navarra



ERIKI 2014-2018  
Eusko Legeburuak

HIRUKO  
ITUNA  
3kn

EUSKAL GOBIERNUAREN  
WEBGUNEA








### ▶ NAFARPRESEK ETORKIZUNeko ERRONKAK AZTERTU DITU

Mailope bazkide den Nafarroako tokiko hedabideen elkarteak, jardunaldiak egin zituen Iruñean. Tokiko prentsari ikusgarritasuna ematea izan zuen helburutzat eta sektoreko profesionalak bere etorkizuneko erronkak aztertzeke topagune izan zen. Digitalizazioa eta adimen artifizialaren gaiak landu ziren besteak beste.



### ▶ IRAKURLE TALDEA MITXAUSENEAN

Euskaraz irakurtzeko hamar laguneko taldea osatu dute Mitxausean. Hilabete bakoitzean zer liburu irakurriko duten adostu eta horri buruz hitz egiteko elkartzen hasiak dira. Sarrionandiaren "Idazlea zeu zara, irakurtzen duzulako" liburua dute orain eskuartean esaterako. Interesatuak gonbidatuak daude.

### LARRAUNGO AEK EUSKARA HURBIL, ZU URRUN HELTZEKO

Hauek dira 23-24 ikasturtean momentuz hasi diren taldeen mailak eta ordutegiak:

- Hasiera maila: Asteartea 16:30-19:30 eta osteguna 17:30-19:30.
- A1: 16:00-18:30 Asteartea eta osteguna.
- A2: 17:30-20:00 Astelehena eta asteazkena.
- B2/C1: 9:30-12:00 Asteazkena eta osteguna.

Oraindik ere taldeetan hasteko aukera dago. Autoikaskuntzan maila guztiak eta ordutegi zabalak. Animatu eta zalantzaren bat baldin baduzu galdetu.





### ▶ AZAROAK 30 GREBA FEMINISTA

Zaintza eskubide kolektiboaren alde antolaturiko greba feministaren harira, Tximutxe Bilgune Feministak eta Larraun Ibarreko Berdintasun Mahaiak hainbat ekimen antolatu dituzte. Antzerki, mahai inguru eta bilerez gain, mobilizazioak deitu dituzte. Agendan kontsulta daitezke honakoak.

### ▶ TATXERS ETA LUKIEK LORALDIAN

Euskal musika taldeen loraldi berria agerikoa da eta horien artean koka ditzakegu talde nafarra eta bizkaitarra. Itoiz taldearen garaiak gogorarazten dizkigute besteak beste eta astebete lehenago, Printzako aretoan sartzeko sarrerak agortuak zeuden jada. Gozatu ederra hartu zuten bertaratu zirenek.

### LARRAUNGO UDALAK AZPIROTZ ETA ETXARRIKO ETXEBIZITZAK ALOKAIURURA ATERAKO DITU HILABETE HONETAN

Ekimen hau Larraungo udalak Etxarri eta Azpirotz-Lezaetako kontzejuekin eginiko hitzarmen bati esker gauzatu da. Azaroaren 17an inaugurazio ekitaldia egingen da 18:30ean Azpirotzen eta 20:00etan Etxarrin, joaten den edonorentzat ikusgai egonen dira. Alokairurako 2 etxebizitzak, 100 m2 inguruko tamaina dute eta erabat hornituak daude, sukalde eta bainuekin. Udalak gogorazi nahi du etxebizitza hauen aukera eduki nahi duenak Larraungo udalean irekita dagoen "etxebizitza eskatzaileen zentsuan" izena eman behar duela. Horretaz gain, Azpirotzko edo Etxarriko etxebizitza hauetako batean interesa izan ezker, azaroak 23 arte eman beharko da izena.



## 100 urte eta segi aurrera

*Ez da erronka makala 100 urte betetzera iristea eta Martina Tolosa Goikoetxeak duela gutxi lortu zuen. Azkaraten jaio arren, Lekunberrin gustura igaro du bere bizitzako zatirik handiena.*

1923ko irailaren 29an Azkarateko Etxeberria baserrian jaio zen Martina. 12 anai-arreba ziren, bera bigarrena eta alaben artean zaharrena. Anaia zaharrena ibiltzen zen artaldearekin eta Andia mendilerroan hil zen. Ordudanik Martinak bete behar izan zuen senide zaharrenaren papera.

Argazkietako batean 11 senideak ikusi daitezke Camino eta Migel Angel gurasoekin.

### Hasierako pausoak

Bere haurtzaroan Atalluko eskolara joaten ziren Azkaratekoak. Zapata

### *Hanka hutsik jaisten zen oinez Atalluraino*

pare bakarra izango zuen orduan Martinak eta ongi zaintzeko, hanka hutsik jaisten zen oinez Atalluraino. Bertara iristean janzten zituen zapatak. Dena den, etxean egin beharreko lanak tarteko, egun batzuetan ezin izaten zen eskolara joan.

13 urte ingurarekin estraperlora joan ohi zen bere aitarekin. Martinak arkume bat hartzen zuen sorbalda gainean eta bere aitak berriz bi. Beldurrik ez eta batera jaisten ziren eta Tolosako harakin bat agertzen zen bertara. Harakinak arkumeak hartu eta zaku bat irin ematen zien taloak, ogia eta abar egiteko. Gerra garaian ez zen erraza horrelakoak lortzea eta beldurrez joaten ziren, harrapatuz



Martina Tolosa Goikoetxea, seme-alabekin



gero kendu egiten zizkieten eta. Azkaraten, Gipuzkoa eta Nafarroa arteko mugatik, ederki entzuten omen ziren gerrako tiroak.

18 urte ingururekin etorri zen Lekunberrira neskame, erdaraz hitzik jakin gabe eta lana gogor egitea tokatu zitzaion. Bertan ezagutu zuen bere senarra izango zen Lekunberriko Ildefonso Mariñelarena. Ildefonsok berak baino 13 urte gehiago zituen eta gaur egungo industrialdetik gertu zegoen Aizpurua enpresarentzat egiten zuen lan meategian. Lur azpian ia kilometro batez ibili eta igeltsua ateratzen aritzen ziren. Hori itxi eta erradiadoreak egiten zituen lantegian aritu zen gero. 1948an ezkondu eta Zarautzen senide batzuk zituztenez, Plazaolako trenean bertara joan ziren eztei bidaiari. Itsasoan hainbeste ur ikustean Martinak ezin zuen hori guztia gazia zegoela sinetsi, bertaratu eta probatu zuen arte.

### Lan asko egindako emakumea

Lekunberriko Pastanea baserrian bizi izan ziren eta Ildefonsoren gurasoak zaintzen lan handia egin zuen Martinak. Horretaz gain, 7 seme-alaba izan zituzten, 3 seme eta 4 alaba (argazkian Arantxa alaba falta da, gaueko txandarekin zegoen lanean une horretan). Martina eta Ildefonsok euskaraz hitz egin arren, frankismo garaia izanik, eskolan gazteleraz aritu behar izaten zuten umeek eta esanak zorrotz bete ezean, egurrezko erregela eta bestelakoekin zigor gogorrak jartzen zizkieten. Gurasoak haien umeek bizi zuten egoeraren jakitun ziren eta zaila bazitzairen ere, tragatzea tokatu zitzairen.

Bizi gogorra izan zuen Martinak. Etxean ez zuten urik eta arropa garbitzera errekarara edo labaderora joaten zen. Luis Urriagaren harategiko lanak ere egiten zituen. Etxean egin zitzakeen lanak aurreratzen zizkion



Etxeberria Baserria (jaiotetxea)

### *Etxean ez zuten urik eta arropa garbitzera errekarara edo labaderora joaten zen*

bereziki harakinari eta besteak beste tripakiak garbitzen, gaueko hirurak arte aritzen zen etxeko sukaldean behin baino gehiagotan. Trukean dirua beharrean, haragia ematen zion harakinak eta horri esker etxean ez zitzairen sekula janaririk falta izan. Ez zizkion xerra eta txuletak ematen noski, baina gisatzeko haragia eta bestelakoekin ongi moldatzen ziren.

1970ean bizi aldaketa etorri zitzairen. Beheko su ondoan zegoen katuari brasaren bat erantsi eta ganbarako lastoetara joan ostean, Pastanea baserria erre zitzairen. Seme-alabek gertatzen ari zena ikusi ez zezaten, hainbat herritar hurbildu eta haien etxeetara eraman zituzten umeak. Igande gau horren ostean, jateko tenedorerik ere gabe, esku hutsik gelditu zen familia. Gaur egungo udaletxe ondoan, irakasleentzako etxebizitzak zeuden eta bertako bi pisu utzi zizkieten familiari, etxe berria egin artean han bizitzeko. Herritarren partetik jaso zuten babesa izugarria izan zen orduan:

maindireak, mantak, kazuelak... denetik utzi zizkieten eta Migel Urrutiak esaterako, txerri bat hil eta den-dena haiei eman zien. Egoeraren aurrean, ikasketetan zebiltzan seme-alabak ere lanean hasi behar izan zuten eta 1972an pasa ziren Iturritak kaleko euren pisu berrian bizitzera. Baserri batetik baratze eta garajedun pisu batera bizitzera joatea, aldaketa handia izan zen Martinarentzat.

### Familia zoragarria bidelagun

Seme-alabak hazten ari zirela eta, Martinaren lehengusua zen frailea bi edo hiru aldiz etorri zitzaion etxera. Semeetako bat fraile gisa sartzeko konbentzitu nahi zuen eta eskolan gainera nahi zuela esan omen zioten. Martinak azken bisitan honakoa erantzun zion: "jornal ona ekartzeko leku ederrera joango da... alde hemendik!". Fraide hura ez omen zen gehiago itzuli eta poliki-poliki seme-alabak ezkonduz joan ziren. Marce semea gelditu zen amarekin bizitzen. Gaur egun, 12 bilobaren amona da eta 17 birbiloba ere badauzka (18 aurki). Bere 4 anai-arreba bizi dira oraindik eta haiekin telefonoz hitz egitean, hika aritzen da. Bitxia bada ere, adinez urrutien duen senidea izan arren, aprezio berezia dio bere anaia gazteenari.

## 12 biloben amona da eta 17 birbiloba ere badauzka

Bere zaletasunetarako ez du tarte handirik izan Martinak, baina baraztean aritzeaz gain, pilota partiduak ikustea gustuko izan du. Behin jubilatuta, Lekunberriko jubilatuetan ere asko gozatu zuen karta jokoetan besteak beste. 1991n alargun gelditu eta dolua gainditzean, jubilatuetako lagunekin txango ezberdinak egiten ere hasi zen eta Benidormera zenbait bidaia egina da besteak beste.

Martinak, oraindik ere ez du inongo minik eta apetitua berriz izugarria. Lo ere asko egiten du. Seme-alaben artean txandaka zaintzen dute ama eta asteburuetarako berriz langile bat dute kontratatua. Urtebetetze egunean, Pilar alabak amari 100 urtera iritsi zela aipatu eta "bai, ni iritsi naiz!" erantzun zion, orain gainontzekooi tokatzen zaigula esanez bezala. Eguna etxean lasai-lasai ospatzea erabaki zuten, hori baita berarentzako leku erosoena. Seme-alabekin egin zuen bazkaria eta iloba zein bilobak etorri zitzaizkion jarraian. Arkaitz herriko alkatearen bisita ere jaso zuen eta hark botatako bertsoa koadroan jarrita daukate salan.



Martina Tolosa Goikoetxea, anai-arrebeekin



Martina Tolosa Goikoetxea, bilobekin



**BERTAKO HARAGIA**

*Txistorra, txorizoa, saltxitxak, sukaldatutako platerak. Etxera eramateko zerbitzua ere eskeintzen dizugu.*

Antigua kalea 7  
31890 BETELU


948 51 30 88    maiteharategia@hotmail.com

*Trigo Garatua*  
**MARGOLARIA**



696 658 288  
**LEKUNBERRI**

**AURRERA  
TABERNA  
ARALAR, 15  
948 60 47 24**



**urrutia**  
*enea*

etxeko hestekiak

**LEKUNBERRI**



Nafar hegoaldeko  
uzta euskarari puzka



Eskatu  
saskia!

# 10 urte bete-bete




urriak 20 - azaroak 9

Balioaren %25 Nafarroa hegoalde  
eta erdialdeko euskalgintzara  
bideratuko da.



errigora.eus





## Festak azken txanpan

Azken herriko festak iristen hasiak dira eta hotza lagun izan arren, ahalik eta zuku gehien ateratzen jarraitzen dute herritarrek. Lekunberrin esaterako, 500 laguneko herri bazkaria egin zuten hainbat ekitaldiz betetako festen barruan eta besteak beste, Esne Beltza taldeak lepo bete zuen karpa. Baraibar eta Uitzin ere umore ederrean ibili ziren, argazkietan begi bistakoa den moduan.



Argazkiak: Hauda



**ASEGURU AHOLKULARIAK**

*Zure onlariari eta segurtasunari babesteko modu bakarra behar bezela aseguratua egotea da*

- ▶ aseguriak@aseguriak.eus
- ▶ 943 65 22 20
- ▶ Korreo Kalea 7-baxua 20400 Tolosa



**HOSTAL BETELU**

Eguneko menua, karta, plater konbinatuak eta pizza goxoak

Erreserbak:  
948 51 30 26 - 663 97 67 09



Era askotako ogiak eta gozoak

Etxez etxe banatuko dugu

Ogia enkargatzeko...  
**948513151**





Argazkiak: Hauda

**BIDEGOXO JATETXEA**

Jaunartzeak  
Ezkontzak  
Ospakizunak  
Enpresa ekitaldiak

Usabal Kiroldegia  
20400-TOLOSA 943 577 573  
info@bidegoxo.com

NEKAZARITZA, INDUSTRIA ETA ERAIKUNTZA  
ARLOETAKO HORNIGAIK  
BURDINDEGI ETA BRIKOLAJEKO TAILERRA


**URZUBI S.A.**

Tel. 948 50 42 41  
Fax 948 60 45 20

Lekunberri  
urzubi@hotmail.com



BARAIBARKO JAIAK



Argazkiak: Maddi Huarte

UITZIKO JAIAK



Argzkiak: Eider Martirena eta Olatz Martirena

Salmenta publiko zuzena prezio ezin hobean  
 Ordutegia, 9:00etatik 13:00etara eta  
 14:30etatik 17:00etara



**BACALAO  
 ELKANO  
 S.L.**

Industrialdea, 11  
 31870 Lekunberri - Nafarroa  
 Tel.- 948507319 Fax.- 948604792  
[bacalaoselkano@jet.es](mailto:bacalaoselkano@jet.es)  
[www.bacalaoselkano.com](http://www.bacalaoselkano.com)

## Julio Soto Finalaurrekoetara

Fernando Ziganda eta Aitor Irastortza kanporatuak izanik ere, Julio Sotok mantenduko eskualdeko ordezkari-tza Nafarroako Bertsolari Txapelketan. Azaroaren 11ko finalaurrekoan kantatuko du Agoitzen Xabat Illarregi, Urko Gartzia, Idoia Granizo, Ekain Alegre eta Julen Zelaietarekin batera. Abenduaren 2an izango da finala Iruñeko Anaitasuna kiroldegian.



## Denbora ezin “galdu”?

Nire amak lau urte zituela, bere amak esan zion bere ondoan aulki txiki batean eseri eta josten hasteko. Eman zion zapi pusketak eta haria jostorratzean prestatuta. Josi eta ez zaitez hortik mugitu. Nire amonari begira ikasi zuen josten. Ongi ikasi ere, baina ez zitzaion aukerarik eman. Ikasi behar zuen denboraz baliatzen zerbait onuragarri egiteko. Eta bizitza osoa josten eman eta gero, hil aurretik aitortu zidan benetan ez zuela horrenbeste maite jostea baina ez zekiela ezer egin gabe egoten.

Beste modu batera, nik ere mezu bera jaso nuen eta ikasketa bera izan nuen. Beti zerbait egiten egon behar dut. Ezin gelditu. Beti asko daukat egiteko zain. Ezin denbora galdu. Eta gainera onura ekonomiko, materiala edo osasunerako ematen badit, hobe. Maiz heldu askori gertatzen zaigun honen aurrean, Bitoriano Gandiagak “Denbora Galdu Alde” liburua idatzi zuen. Aspaldi irakurri banuen ere, ez nuen neureganatu.

Denbora ezin “galdu” honetan bizitza joaten zait ez banaiz adi egoten. Oraindik lanari ematen diot nire denboraren zati ederra, gainera. Jakina, horrela dirua irabazten dut eta nire gastu eta zorrei egiten diet aurre. Hala ere, azken bolada honetan, kostata, ari naiz nire buruari esaten “utzi itzak alde batera, neurri batean behintzat, beldurrak eta ikasitakoak. Dirua eta denbora librea ere badira, besteak beste, bizitzaz gozatzeko”.



## MikroiPUIN Lehiaketa 2023

Aurten ere abian da mikroiPUIN lehiaketa. LHko 5. mailatik Batxilergoko 2. maila arteko ikasleak eta bizitokia Larraunen edo Araitzen duen 18 urtetik gorako edozeinek parte hartu dezake. Lanek originalak, aurrez saritu gabeak, argitaratu gabeak eta euskaraz sortuak izan behar dute. Gaia librea izan da eta luzerari dagokionez, ez dago aurrez ezarritako mugarik. Azaroak 17 baino lehenago aurkeztu behar dira lanak euskara zerbitzuan, gutun-azalean jasota. Sarien artean, ikasle ziklo bakoitzeko 40 euroko bono bat dago eta 18 urtetik gorakoentzat 100 eurokoa, biak ala biak Lanbroa liburu dendan gastatzeko.

## Araizko zaporeen 7. Feria, haziak zabalduz

Sendotuz doan feria dugu jada Araizko Zaporeak taldeak antolatzen duena. Hainbat talde eta norbanakoren laguntzaz ospatu zen aurtengoa ere eta bertako haziak gorde eta erabiltzearen garrantzia mahai gaineratu zuten bereziki. Musikaz giroturik, bertako hainbat produktu lortu eta ezagutzeko aukera ederra izan zen Arribekoa.





# “Hemen egiten diren gauzak kozkorrak dira”

*Maiatzaren 15ean hasi zen Javier Almirantearena Legaz Lekunberriko Zerbitzu Anitzetako arduradun gisa lanean. Hasiara mugitua izan du, baina oso pozik dago lanpostu berrian.*

## **Nor da Javier Almirantearena Legaz?**

40 urte ditut eta Orbaizetakoa naiz, Pirinioetakoa. Duela 20 urte ezagutu nuen nire emazte Maitane Oderizko festetan eta Irurtzun inguruan ibili izan naiz ordudanik. 13 urtez Ororbiako lantegi batean aritu nintzen lanean, 2019an Irurtzongo udaletxean lan egitera pasa nintzen bakante bat betez eta iaz, Iturmendin plaza atera bezain laster, Lekunberrikoa lortu nuen jarraian. Hona lekualdatu eta hemen nabil maiatzaz gero.

## **Nolatan aurkeztu zinen Lekunberriko lan aukera honetara?**

Iturmendin plaza ateratzean ez nuen hona etortzeko asmorik, baina emazteak hemengo osasun etxean egiten du lan fisioterapeuta moduan eta berak esan zidan hemengo lan

eskaintzara apuntatzeko, Iturmendikoa gustatzen ez bazitzaidan ere. Eta asmatu nuen. Iturmendi txikiagoa da eta gehiago behar nuen.

## **Aurrez izan al duzu esperientziarik horrelako lanetan?**

Bai, nik ekipo industrialetako mantentze lanak ikasi nituen Txantrean eta betidanik egon naiz gauzak konpontzen. Errepideko belar mozketak egiten ere lan egin izan dut eta baita indusketetan ere... Irurtzunen lanean pasatako 3 urte eta erdiak ere gauza bera egiten pasa ditut.

## **Nolakoak izan dira lehen hilabeteak lanpostu berrian?**

Eromen pixka bat izan dugu. Nire postuan lan egiten zuen Jose Manuel jada jubilatua zegoen eta praktikoki ez da esperientzia hori trukatzeko aukerarik egon lanean bertan. Edurne lankidearekin bai, baina bera ere lanez lepo zebilen Jose Manuelen hutsunea bete beharrekin eta ni hasi bezain laster hartu zituen oporrrak. Espainiako itzulua zetorrelako ere ezohiko lan dezente izan genuen, antzinako azoka, festak... hemen egiten diren gauzak kozkorrak dira orain arte ikusitakoagatik. Horrelako egunak datozenerako materiala

*“Ikusten ez den lan pila bat dago atzetik”*

prestatzen hasi beharra dago, elektrizistekin hitz egin... dena aurreratuz azken batean. Gero berriz, dena jasotzen hasi eta 3 egun behar izaten ditugu bukatzerako. Ikusten ez den lan pila bat dago atzetik.

## **Zenbat langile dituzu zure gain? Ardura handia sentitzen duzu?**

Edurne eta biok finko gabilta. Brigadarako sei hilabete edo urtebeterako kontratatu ohi da jendea eta lau aritzen dira bertan. Guztira sei gabilta, beraz.

Lantegian ere mantentze lane-tako enkargatua izan nintzen eta askoz potenteagoa da hura honekin

Argazkiak: Labrit

## Oroitzapenei

Azkenik hotzak eta udazkenak beraien debuta egin dutelako edo zira eta berokiek armairuan protagonismoa bereganatu dutelako edo urteko nire urtaro gustokoena delako, ala denak batera, baina nostalgiaz beteta nator gaur.

Hilabete pare bat pasa ditut nire baitan murgildua, proiektuak, lana, ikasketak... zirela eta. Baina, aste pare bateko geldialdia egitea tokatu zaidanean, altxa dut burua eta nire burbuilatik atera naizenean... bum! mundua bat-batean guztiz aldatu da, eta niretzat normalak, egunerokoak, ohikoak eta zergatik ez, goxoak zirenak desagertu direla konturatu naiz.

Oroitzapen bilakatu dira eta min egin dit horrek. Bai, min egin dit, ez dakidalako oroitzapen horiek berriro bizitzeko aukerarik izango ote dudan. Edo hartan geratuko diren, nire memorian, gutxi-naka lausotuak. Ondoren tristura sentitu dut, merezi zuten agurra ez dietela eman sentitzen dudalako. Eta azkenik hemen nago, zerrenda egiten, gerra osteko hildako edo desagertuak balira, badaezpada ere idatzizko frogak uzten etorkizunerako. Inork, baina batez ere nik, ez ditzadan ahaztu eta noizbehinka bada ere hitz hauek irakurtzean, omen-du ditzadan.

Oroitzapen bidean daudenak:

- Kontzertuetan "beste bat" oihukatzea.
- Argitaratzeko zain izan ondoren, liburu berri bat.
- Telesail gustukoaren hurrengo atala ikusteko itxaronaldi eta zirrara.
- Bazkalosteetan kanta herrikoiak eta bertso zaharrak abestea.
- Anixezko karameluak, hortzak puskatzeko gaitasuna dutenak.
- Olentzerorentzat oinetakoak txukun eta garbi uztea.
- Gosaltzeko ahia.
- Iputargiak.



Argazkiak: Labrit

konparatuta. Segurtasuna eta kalitatea udaletxeetan ezberdina da, familiarragoa nolabait esatearren. Industrietan ezin zara lerrotik atera eta hemen desberdina da, zure modura, ongi, lasai eta aurrera. Horrexegatik atera nintzen industriatik. Akzionistak, ERTEak... ez nuen hainbesteko ardura sentitu nahi nire gain eta hortik atera beharra neukala ikusi nuen. Lortu nuen eta oso pozik nago.

### Zure lan egun bat deskribatuko?

Iristen naizenean adibidez, goizeko zazpietatik bederatziak arte eskolan aritu ohi naiz, haurrak sartu baino lehen bertako lantxoak egiteko. Gero egun batetik besterako plan bat egiten saiatzen naiz. Aurrez hasitako lanak bukatuak ditugun edo ez aztertu eta eguraldiaren arabera ere antolatzen gara. Ez da berdin euriarekin edo eguzkiarekin aritzea. Gaur adibidez konpostagailuak husten ari dira langileak eta herenegun euriagatik ezin zen. Bestalde, abisuak ere egoten dira. Esaterako arketa bat puskatu dela esaten badigute eta arriskutsua dela, bertara joan behar izaten gara. Kultur teknikariak, arkitektoak edota zinegotziak emandako ideiek ere eragiten dute gure lanean ia beti.

### Lekunberrin kalean egin beharreko ia lan guztiak zuen gain beraz, ezta? Udal instalakuntzak ere bai?

Kaleari dagozkion ura, espaloiak, arketak, belarra, garbiketeta... hori guztia gure gain dago bai. Astelehen eta ostiraletan egiten ditugu garbiketeta lanak eskuz zein makinaz. Garbitzeko makina, giro zero esaten zaion belarra moztekoa eta traktorea

*"Beste herri batzuekin alderatuta profesionalizatzea falta da"*

dauzkagu lan horietarako. Udal instalakuntza batzuk gure gain daude eta beste batzuk ez. Kiroldegia esaterako mankomunitateak kudeatzen du eta asko jota laguntzera sartzen gara bertara.

### Nahiko baliabide dituzue horretarako guztirako?

Beste herri batzuekin alderatuta profesionalizatzea falta da. Gauzak mugitzeko esaterako kamioi edo furgoneta handi bat behar genuke eta gaur egun, Pick Up eta Berlingo batekin ibiltzen gara. Materiala ere lau txoko ezberdinetan daukagu eta hori nabe batean zentralizatua egotea komeniko litzake, guztia antolatuago izan eta beste herriei gauza gutxiago eskatzeko (mahaiak, aulkiak...). Lan taldeari dagokionez ere, jende gehiago behar genuke. Udala honen guztiaren jakitun da eta aukera ezberdinak aztertzen ari dira.

### Lanetik kanpo zer zaletasun dituzu?

Mendira joaten saiatzen naiz, baina askotan ez dut lortzen. Bi alaba eta 40 urte dauzkat eta animoak jaisten doaz kar-kar. Lagunekin egon eta Orbaizetara joatea ere gustatzen zait. Han daukat nire familia osoa: ama, aita... eta Irurtzungo kuadrilaz gain, hango kuadrilarekin harremana mantentzen ere saiatzen naiz.



## Denboraldi berrirako ilusioz Beti Kozkor

Pasa den irailaren 29an aurkeztu zituen Beti Kozkor futbol elkarteak ikasturte honetako taldeak. Iaz baino 70 jokalaria gehiago izango ditu aurten, 317 guztira. Futbol eskolan ariko direnez gain, neskek 4 talde izango dituzte benjaminetatik hasi eta jubenilak arte. Mutilek berriz, benjaminetatik hasi eta helduen hirugarren mailaraino, 11 talde izango dituzte. Zortetik onena guztioi!



## Ibai eta Txomin aizkolari txapelketako finalera

Nafarroako Aizkolari Txapelketako kanporaketa jokatu zen Lekunberrin eta araitarrak fin aritu ziren. Iker Vicentek irabazi arren, Ibai Soroak egin zuen bigarren eta Txomin Amundarainek bosgarren. Honenbestez, azaroaren 17an 18:00etan Doneztebe-ko ferietan jokatu den finalerako txartela eskuratu zuten biek.

## Ezkurdia, Salaberriaren gaineratik

Hainbat pilota partidu jokatu dira Lekunberriko festetan eta haien artean profesionalenak ere bai. Lau eta Erdiko Txapelketako ligaxkako partida jokatu zuten arbizuarrak eta goizuetarrak besteak beste. Modalitate honetako egungo txapelduna izan zen nagusi 22-9.



## Trial erakustaldia

Trial erakustaldia antolatu zuten Lekunberriko festetan. Hainbat zaleren larunbat arratsaldea gozatzeko aitzakia ederra izan zen honakoa eta aurrerantzean ere horrelako gehiago antolatzeko gogoz daudela dirudi.

Hurrengo:

Maidar Balda (Lekunberri)



Oihane Balda  
(Gorriti)

# maite ditut maite gure bazterrak

**Pagoeta (848m) eta  
Urkieta (854m)**

**Ibilbidea:** zirkularra  
**Distantzia:** 10,24 km  
**Desnibela:** 436 m  
**Zailtasuna:** erraza

## Zergatik aukeratu dut?

Gorrititik hurbil dauden bi mendi polit eta errazak direlako. Hortaz gain, zona hori asko gustatzen zait Malloak ikusten direlako uneoro eta hauen presentziak asko transmititzen didalako.

## Bidea:

- 1 Gorriti herrian autoa utziko dugu eta beheruntz joko dugu, herriko harraskara iritsi arte. Hormigoizko pistatik joango gara, tunel bat ikusi arte. Bertatik igaroko gara eta aurreruntz jarraituko dugu pistari jarraituz.
- 2 Hormigoizko pista bukatzean, herriko ehiztari-txabolara iritsiko gara eta bidexka batetik jarraituko dugu goruntz. Bidean goazela Malloak ezkereruntz izango ditugu.
- 3 Langa batera iritsiko gara gure ezkerretara eta beste aldera pasako gara, Araitz aldera. Hortik, aurrera joko dugu Musaiora iritsi arte.
- 4 Musaiotik pasa eta ezkereruntz abiatuko gara; ondoren beherantz joango gara, bi mendiak (Pagoeta eta Urkieta) aurrez aurre ikusi arte.
- 5 Lehenengo Pagoeta mendia igoko dugu, zuzen jarraituz goraino. Goitik Malloak ikusiko ditugu aurrez aurre. Ondoren ondoko mendira joango gara, Urkietara, paseotxo bat emanaz. Urkieta mendia nahiko malkarra da eta kontu handiarekin ibili behar da.
- 6 Bukatzeko igo garen tokitik jetsiko gara, baina eskubitara joko dugu ibilbidea zirkularra izan dadin. Araizko aldetik bueltatuko gara, langa batera iritsi arte. Hortik igaro eta Gorriti herrira iritsiko gara.

**Nire gomendioa:** Ibilbidea oso erraza da eta bistak oso politak dira. Bi mendi txiki eta ezezagunak dira, baina horrek ere badu bere xarma. Animatu zaitetze ibilbide hau egitera!



# emozioen munduan



● ● Lorea Zulet (Psikologoa)

## Sare sozialak

**Denok dakigu sare sozialak eta horien erabilera gero eta garrantzi handiagoa izaten ari direla gaur egun. Ez dago ia inor sare sozialik ez duenik, gehiago edo gutxiago erabiltzen duelarik.**

Jakina, sare sozialek alde positiboa dute gizartean. Munduko edozein lekutan dauden pertsonekin komunikatzeko aukera ematen digute, konexio- eta pertenezia-sentimendua erraztuz eta online gizarte-ongizatearen sentimendua areagotuz.

Sare sozialek mugarik gabeko informazioa eskaintzen dute, doan eta instantaneoki (nahiz eta ez beti eraginkorra, garrantzitsua da iturriaren fidagarritasuna ziurtatzea).

Hala ere, gizateriaren aurrerapen zientifiko guztiak bezala, aurrerabideak ere ezagutu eta kontuan hartu beharreko arriskuak dakartza. Ikus ditzagun sare sozialek dituzten inpaktu psikologikoetako batzuk:

1

Sare sozialak erabiltzen emandako denbora gehitzea mundu errealaren isolamendu-sentsazioarekin lotuta dago, eta horrek nahasmendu mentalak garatzen lagun dezake.

2

Erabiltzaileek argitaratutako eta kontsumitutako eduki mota da osasun mentalean inpaktu handiena duen elementua. Argitalpen batzuek lortu ezin diren bizimoduak indartzen dituztela ikusi da; izan ere, argitaratzen dena, normalean, gure bizitzaren zati bat da, polita, eta ez bere osotasunean gertatzen dena, dena ondo doakien sensazio faltsua elikatuz, dena perfektua da beti (adiskidetasun-harremanak edo harreman erromantikoak, elikadura- edo kirol-ohiturak, emozioen kudeaketa, etab.), eta horrek sintoma depresiboak, antsietatea eta autoestimu txikia garatzen laguntzen du, erabiltzaileen arteko alderaketaren ondorioz.

**CARPINTERIA HNOS. AZPIROZ, S.L.**  
ZURGINTZA OROKORRA  
INDUSTRIALDEA 15- LEKUNBERRI  
Telefonoa eta Faxa: 948507343  
carpinteria@carpinteriazpiroz.com

**OGI-BERRI ALTZA**  
Aralar kalea, 41  
Lekunberri  
**OGI BERRI**  
OKIN ARTISAUAK 948604884

**German Lasarte**  
ARRIBONDO **HARATEGIA**  
Aralar kalea 9  
Lekunberri  
948504157

**SAN MIGUEL**  
gasolindegia  
Xabier Garmendia 629 350 099  
Arbe-Atallu

**ALIPROX**  
Lekunberri  
**janaridenda**  
hamabostaldiro  
eskaintza bereziak

**OTXOTORENA**  
okindegia  
**ARRIBE**  
**ADIII TLF BERRIA:**  
948 51 30 32

**INFORMATIK ARALAR**  
LEKUNBERRI - ARAITZ  
LARRAUN  
JALMENTA ETA AGOPONTZA  
634 551 743  
infoaralar@gmail.com

Enrolaketa 19,  
Lekunberri  
**MARTILLO Txiki**  
PARRAISO ERREJA  
www.martillotxiki.com  
910 856 626  
679 938 016

3

*Fake news*-ek erabiltzaileen osasun mentalean ere eragiten dute, erantzun emozional indartsu bat eragiteko diseinatuta daudelako, haserrea, beldurra, antsietatea eta tristura bezalako sentimenduak sortuz. Bestalde, erabiltzaileek albiste faltsuak identifikatzen dituztenean, haserrea eta frustrazioa eragin diezaiakete.

4

Sareen anonimotasunak komunitate-sentsazioa sor dezake gauzak beste modu batera partekatzean. Hala ere, anonimotasun horrek eta pribatutasunik ezak indarkeriaren hedapena erraztu dezakete (ziberjazarpena edo hatea), eta horrek, jakina, kaltetutako pertsonen osasun mentala okertzen du.



6

Sintoma psikologikoen eta sare sozialen erabileraren arteko lotura modu problematikoan edo ez oso osasungarrian azaltzen duten hainbat teoria daude. Aritu batzuek diote arazo psikologikoak FOMO edo FOBM fenomenoagatik, *fear of losing out* edo zerbait galtzeko beldurragatik, erabiltzaileek sare sozialetara antsietate- eta depresio-sintomak saihesteko edo murrizteko metodo gisa jotzen duten zirkunstantziengatik, kanpoko faktoreengatik eta erabiltzaileen adinagatik agertzen direla.

5

Like-ak eta iruzkinak bezalako elementuek erabiltzaileen arteko lehia sustatzen dute, baita horiek lortzeko kezka edo kezka ere. Elementu horiek sariaren eremua aktibatzen dute gure burmuinean, eta horrek estimulu horrekiko mendekotasuna eragin dezake. Hori lortzen ez bada, antsietatea, estresa edo depresioa bezalako pairamenen disparadorea izan daiteke.

**IORTIA** ODONTOLOGIA · HORTZ-ESTETIKA

Ametz Soroa Guelbenzu · Odontologoa Kol.Zk. 785  
Vanessa de Abreu Perdomo · Odontologoa Kol.Zk. 740

Lekunberri: 948 604 804 · 618 818 005  
Altsasu: 948 467 603 · 667 66 17 69

ODONTOLOGIA OROKORRA · INPLANTEAK ·  
ORTODONTZIA · HORTZ-ESTETIKA · PADI

**ekin**  
rotulación  
948 85 32 79

**SAN MIGUEL**  
Taberna-Jatetxea  
Arribe  
948 51 31 34

**TAXILON**

661 202 249  
(9 plaza)

Lontxo Otamendi Artola

E-posta: lotamendi5@gmail.com Atallu - Araitz



# Jatera goazena ordenatzen

**Dieta eta hezkuntza nutrizionala eskaintzen ditu Ana Gurreak. Argazki-laritza eta programazio mundutik pasa ondoren, garbi ikusi zuen elikadura arloan murgildu beharra zeukala. Bidea egiten hasi eta gaur egun, bere kontsulta propioa dauka.**



Argazkiak: Ana Gurrea

Anaren etxean beti eman diote garrantzia elikadurari. Bere gurasoen etxean, amak egunero prestatzen ditu barazkiak eta horrez gain, lekaleak, haragia, arraina... elikadura anitza eta nutritiboa. Otorduek bere espazioa dute: ordutegia errespetatuz, elkarrekin bazkalduz, eserita, distraziorik gabe... Etxean beti hori ikusita, normala iruditzen zitzaion, baina etxetik alde egitean konturatu zen duen garrantziaz. Beste etxe edo

espazio batzuetan ez da ohiko horrelakoak ikustea.

Atentzioa ematen zioten elikaduraren inguruan existitzen diren mitoek, jatean egiten ditugun akatsek eta "dietaren kulturak" egiten digun kalteak ere bai. Bere kabuz hasi zen ikasten: sare sozialak, podcastak, liburuak... horrek guztiak bere momentu horretako lanak baino gehiago motibatzen zuela ikusi zuen arte. Beraz, modu

ofizialean ikastea erabaki zuen, titulua lortzeko eta horretan lan egin ahal izateko.

Dietetika ofizialki ikasten hasi zenean bazekien kontsulta klinikoa izango zela bere bidea. Betidanik egin du lan jendearen aurrean eta pertsonekin erlazionatzea gustatzen zaio. Pandemia zela eta, Lekunberrira bueltatu zen bizitzera eta horrekin batera bere lekua aurkitu zuen herrian. Gainera, zerbitzu hau ez zuen inork eskaintzen eta aukera polita iruditu zitzaion bidea egiten hasteko. Aurreko udan hasi zen kontsultarekin.

Arrazoi ezberdinengatik hurbildu ohi zaio jendea: pisu galera, pisua igotzea, kirol nutrizioa, patologiak... baina gehiengoak pisu galera bila-

***Zilegi da gure gorputza hobetu nahi izatea, baina gure gorputza errespetatuz eta maitatuz beti ere, ez gorrotatuz.***

tzen du gaur egun. Hezkuntza nutrizionala du gustuko Anak, helburua edozein izanda ere, bere zergatia azalduz eta pertsonak zeozer berria ikasiz.

Fase ezberdinak ditu dieta batek. Lehenengo pausoa erabakia hartzea da. Pazientea beregana datorrenean elkarriketa luze bat izaten dute, elkar ezagutu eta bezeroaren egoera aztertzeko. Bakoitzak bere testuingurua du: familia, lana, ordutegiak, kirola, jateko era... eta horren arabera helburu bat eraikitzen dute. Behin helburua finkatuta, jarraitu beharreko bidea markatzen dute. Anari "bide orria" deitzea gustatzen zaio, pertsonak ez galtzeko gida gisa balio dezakeen mapa balitz bezala, baina bidea ez dela lerro zuzena argi uztea gustatzen zaio. Hortik aurrera bezeroarekin adosten ditu eraman



beharreko jarraipenak, hilabetean behin, bitan... pertsona eta kasuaren arabera.

Ez zaio dieta itxiak ezartzea gustatzen, horrek prozesuak porrot egitea eragiten duela uste du. Nahiago du kontsultara datozen pertsonen helburuak lortzeko, beren gorputzak zer behar duen erakustea. Denbora eta pazientzia ere behar dira, eta prozesuan sinestea. Batzuek bide azkarra bilatzen dute eta emaitzak berehala ikusten ez badituzte frustratu egiten dira. Aspaldidanik ezarritako ohiturak iraultzeko gauza asko desikasi eta berriak ikasi behar direla ulertzea garrantzitsua da.

Buruan oso sartuta daukagu "dieta egitea" sufritzea dela, gutxi jan behar dugula edo gauzak debekatu behar direla, baina askoz errazagoa da Anaren esanetan. Bere ustez zilegi da gure gorputza hobetu nahi izatea, estetikagatik, osasunagatik, errendimenduagatik... baina gure gorputza errespetatuz eta maitatuz beti ere, ez

### ***Etxekoak zaintzen eta zerbitzurik onena ematen saiatzen da.***

gorrotatuz. Horrek guztiak prozesu bat dauka eta osasun mentalak hemen ere paper garrantzitsua jokatu du. Azken finean osasuna erabateko ongizate fisiko, mental eta sozialeko egoera da.

Oro har, pozik dago zerbitzuak izan duen harrerarekin: "Lekunberri herri txikia da, eta onerako edo txarrerako, mundu guztiak ezagutzen zaitu kar-kar, baina erantzuna positiboa izaten ari da". Etxekoak zaintzen eta zerbitzurik onena ematen saiatzen da, eta ahoz ahokoak asko laguntzen du. Lekunberri gain, orain Iruñeko eta Ororbiako beste zentro batzuetan ere egiten du lan, eta oso pozik dago. Dena den, etorkizunean die-

tista bezala haztea eta Lekunberri zerbitzua zentralizatzea gustatuko litzaioke: "Lan honetan garrantzitsua da eguneratuta egotea eta horregatik etengabeko formazioan nago (patologia digestiboak, hormonalak, kirol-nutrizioa...)". Bere lanean konfiantza ezartzen duten pertsonen ahalik eta zerbitzurik onena ematea gustatuko litzaioke.

Informazio gehiago nahi izanez gero, instagrameko @ordenando-loquecomemos atarian sartzea da gomendinoa. Bertan, astero igotzen ditu infografiekin, errezetekin eta bestelako informazioarekin lotutako berriak.

**CONSTRUCCIONES**  
**URANGA/SAIGÓS. S.L.**  
ERAIKUNTZAK  
TEILATUAK  
FATXADAK  
ERAIKINEN ZAHARBERRITZEA  
665 708 683  
Lekunberri

**ERREABILITAZIOAK**  
**IGELTSERITZA**  
**FATXADAK**  
**TEILATUAK**  
**Construcciones Gañarbe**  
Oztegin kalea 2, Lekunberri  
construccionesganarbe@gmail.com  
616 457 540  
636 827 846



MÁS SABE EL DIABLO POR VIEJO  
QUE POR DIABLO  
DEABRUVA ADINTSU, HORREGATIK  
JAKINTSU



...¿O NO? EDO EZ?

SUSCRÍBETE A TU REVISTA LOCAL  
y recibe un lote de libros gratis.  
HARPIDETU ZURE HERRIKO ALDIZKARIAN  
eta jaso liburu-sorta bat doan.

\* Las 10 primeras personas que se suscriban recibirán  
un lote con tres libros gratis.

\* Harpidetzen diren lehen 10 lagunek hiru liburu doan  
dituen sorta bat jasoko dute.

nafar  
PRES

Asociación de la  
Prensa Local de Navarra  
Nafarroako Tokiko  
Prentsaren Elkartea

## ▶ AGENDA

### AZAROA

**1** - 18:00 Bilera irekia Araizko udaletxean Tximutxe Bilgune Feministak deituta. Azaroaren 30eko greba feministaren nondik norakoak eta prestaketa.

**10-12** - Aldatz eta Gaintzako festak. Egitarauak kontrazalean.

**18** - 19:00 "Putaren bakarriketa errotxean" antzerkia Gabari gune irekian, Berdintasun Mahaia antolatuta.

**18** - 22:00 Printzan kontzertuak: Patxuko Nice eta Pleura.

**24** - 19:00 Hitzaldi-solasaldia Araizko udaletxean Tximutxe Bilgune Feministak antolatuta. **Ahoztar Zelaietaren** eskutik 'Residencias SA: El negocio de los cuidados en Euskal Herria' liburuen aurkezpena. **Solasaldia:** "Zahar etxeen pribatizazioak nola eragiten die langileen lan baldintzei eta adinekoen zaintza kalitateari". Parte hartzaileak: Amavir Beteluko Leire Arzuaga eta Rosi Gaztelumendi langileak, LABeko Maite Olanorekin batera.

**25** 19:00 Lekunberriko udaletxetik Larraungo udaletxera manifestazioa, Berdintasun Mahaia deituta.

**26** - Baztango mendi itzuliko azken etapa: Belate - Txaruta - Donamaria. Ttuturrek antolatuta.

**30** - Greba feminista.

## ▶ IRAGARKI TAULA

### Iratxe Nafarroako Kontsumitzaileen Elkarte

Hainbat arlori dagozkion doako bitartekaritza eta laguntza juridikoa jaso liteke hilabetero laugarren asteazkenean, Lekunberriko udaletxean 10:00etatik 13:00etara. Aurrez hartu behar da txanda eta hurrengo egunak azaroak 29 eta abenduak 27 izango dira.

Arlo hauetako laguntza jaso liteke:

- ▶ Etxebizitza: Eraikuntza inguruko arazoak, erosketa, alokairua, jabe elkarreak...
- ▶ Aseguruak: Aseguru kontratuei buruzko argibidea, kalteordainak, diru-sariak...
- ▶ Banku eta aurrezki kutxak: Maileguak, komisioak, kreditu txartelak...
- ▶ Etxeko zerbitzuak: Gasa, telefonoa, ura, internet, argia...
- ▶ Tailerrak eta zerbitzu teknikoak: Konponketak, garantiak...
- ▶ Komertzioa: Bidaia-agentziak, tintoreriak, janariak, garantiak...
- ▶ Administrazioa: Zergak, tasak, isunak, zerbitzu publikoak...
- ▶ Gure kontsumoari buruzko guztia.

### PUBLIZITATEA MAILOPEN

Labrit Multimedia - 948 210 103  
mailopez@labrit.net



SOTIL GARAJEA

BETELU

948 513 007

sotilgarajea@gmail.com

# aitz berri

edertasun  
zentroa

Lako bekoa  
Betelu 31890  
696 732 290  
aitzberri@hotmail.com

Ile-apaindegia  
Estetika  
Presoterapia  
Podologia  
Laser-depilazioa eta  
depilazio elektrikoa  
Dietista-nutrizionista  
Mikropigmentazioa ezpai-  
netan  
Mikroblading bekainetan



# ALDAZKO FESTAK

## **Azaroak 10, Ostirala**

12:00 Suziria  
12:30 Patata tortila txapelketa  
13:00 Toka txapelketa  
14:30 Bazkaria elkarte  
17:00 MUS txapelketa elkarte  
21:00 Herri afaria  
23:00 Gaupasa Martixako musikarekin

## **Azaroak 11, Larunbata (San Martin eguna)**

11:00 Meza nagusia  
11:30 Erronda etxez etxe txarangarekin  
16:30 Puzgarriak frontoian  
17:00 Poker txapelketa elkarte  
20:00 Pintxo-pote elkarte  
00:00 DJ Izzei & Eneko

## **Azaroak 12, Igandea**

9:30 Txistulariak herrian zehar  
12:00 Larraungo eskolako pilota partiduak  
13:00 Bermuta  
14:30 San Martin eguneko bazkaria  
17:00 Bingo  
19:00 "Milagros eta Valentina" antzerkia  
21:00 Festen bukaera

# GAINTZAKO FESTAK

## **Azaroak 10, Ostirala**

19:00 Poteo Herrikoa  
21:00 Martintxoren jaitsiera  
Ondoren Herri Afaria Sonbelu elkarte  
00:30 Fan&Go erromeria taldea

## **Azaroak 11, Larunbata (San Martin eguna)**

12:00 Meza Nagusia  
Ondoren hamaiketako  
14:30 Bazkari autogestionatua  
17:00 Haurrentzako merienda eta jolasak  
18:00 Mus txapelketa  
19:00 Poteo Herrikoa  
00:30 DJ Freedom Events  
Ondoren musika goizaldera arte

## **Azaroak 12, Igandea**

8:00 Suziriak  
12:30 Meza Nagusia  
Ondoren hamaiketako eta bertsolariak:  
Bixente Gorostidi eta Unai Muñoa  
18:00 Talo jatea Sonbelu elkarte